

JAKINARAZTEN DA Alkateak 2025eko azaroaren 28an ondorengo Dekretu hau eman duela:

“1372/1986 Errege Dekretuko 75.1.b) eta 77.2 artikuluetan oinarrituta, 2025 eta 2026 urteetan nagusiki 2-10 urte bitarteko adingabeei zuzendutako feriekin lurzoru publikoa okupatzeko baimenak deialdi irekiaren bidez esleitzea dagokiola ikusita, jarraian zehaztutako epealdietan baimenak esleitzeko lehentasun-zerrenda eratzeke deialdia egin eta argitaratu zen:

Zozketarako bi epealdiak honako hauek dira:

1. Gabon garaian, Munibe plazan. Azaroaren 28tik hurrengo urtarrilaren 6aren ondorengo lehen igandera arte (Okupazioak modu zabalean errespetatu beharko ditu terrazekin egiten den okupazioa eta oinezkoen pasaguneak):

- 2025eko azaroaren 28tik 2026ko urtarrilaren 11ra.

2. Karnabal garaian, Fraiskozuri plazan. Karnabaletako asteartearen aurreko asteazkenetik, ondorengo igandera arte (Okupazioak modu zabalean errespetatu beharko ditu terrazekin egiten den okupazioa eta oinezkoen pasaguneak):

- 2026ko otsailaren 11tik otsailaren 22ra arte.

Gabon epealdirako Eusebio Antonio Alves Bernardo jaunak (NAN: X1****06K) "Hugo eta Eusebio Atrakzioak SL"ren izenean (IFZ: B75174821) aurkeztutako eskaera bakarrik jaso da eta beste epealdiari dagokionean ez da eskaerarik aurkeztu.

Hori ikusita Gabon garaian Muniben lurzoru publikoa feriekin okupatzeko lehentasuna Hugo eta Eusebio Atrakzioak SL (B75174821) enpresak duela aitortzea dagokio, zehazki Gabon garairako (2025eko azaroaren 28tik 2026ko urtarrilaren 11ra arte). Beste epealdia, berriz, hutsik aitortzea dagokio.

Ikusita aurkeztu dituen agiriak zuzen, forman eta epean aurkeztu dituela, baimena behin behinean ematea dagokio, automatikoki behin betikotzat joko dena behin tasa ordaintzen duenean.

Hori guztia ikusita, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: 2025eko azaroaren 28tik 2026ko urtarrilaren 11 arteko Gabon epealdian, Muniben feria txikia instalatzeko baimena lortzeko lehentasuna "Hugo eta Eusebio Atrakzioak SL"k duela aitortzea eta, beraz, feria Muniben jarrita lurzoru publikoa okupatzeko baimena ematea (Esp.zk.a.: 2025BLIZ0001) deialdia arautu zuen oinarrietan jasotako baldintzetan.

Adieraztea ere baimen hau behin behinean ematen dela eta automatikoki behin betikotzat joko dela tasa ordaintzen duenean. Horretarako jakinarazpen honekin batera dagokion erreziboa bidaltzen da. Tasa ordaintzearekin batera, 375 euroko fidantza utzi beharko du gordailupean Hugo eta Eusebio Atrakzioak SL (B75174821) enpresak, honako kontu korrontean transferentzia egin eta transferentziaren kontzeptuan honakoa jasota (2025LUSE0020): ES94 2095 5070 79 1061 07 55 69

Halaber, adieraztea segurtasun- eta sendotasun-ziurtagiria aurkeztu behar duela atrakzioa muntatzen denean, eskumena duen teknikari tituludunak edo ikuskatze-erakunde egiaztatuak egin behar duena.

BIGARRENA: Erabaki honen berri ematea web-orrian argitaratuta, 39/2015 Legeko 45. artikuluaaren arabera, argitalpen honek jakinarazpen-izaera duelarik eragin guztietarako (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan
IDAZKARIA

